



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 22

Urtea/Año 2014

Martxoa-apirila/Marzo-abril

GURE TALDEEN TRUKEAK

HARI-ORKESTRAK

Ohikoa denez, gure Eskolako hari-orkestrek trukea antolatu dute. Aurten, Iruñako "Joaquin Maya" Udal Musika Eskola izan da hautatua. Martxoaren 31n izan dira gurekin eta, Musika Eskoletan ematen dugun irakaskuntzaren mailaren islada, oso kontzertu atsegingarri eta goi-mailakoa eskaini digute, gure neska-mutilekin batera. Maiatzaren ostiral 9an bueltatuko diote bisita gure hari-taldeek.

BANDA

Gure Banda Handiak, Toledoko La Puebla de Almoradiel udalerriko "Santo Tomás de Aquino" Udal Musika eta Dantza Eskolak antolatutako Musika Eskolen VI Topaketan parte hartuko du apirilaren igande 6an. Topaketa honetan, anfitrioiekin eta gure Eskolarekin batera, Tielmeseko Musika Eskolako madrildarrak izango dira. Toledokoek azaroan bisitatuko gaituztela espero dugu.

BA AL ZENEKIEN...?

Abesbatzen kideen bihotzek batera egiten dituzte taupadak eta beraien sentimentuek bat egiten dute. Gøtenburgoko Unibertsitateko Neurozientzien eta Fisiologiaren Institutuan egindako ikerketaren arabera, taldeakako kantua gdatutako arnasketak ongizate fisiko eta emoziozkoan laguntzen du. Abesbatzaren kideek ez dute soilik musikaren erritmoarekin batera mugitzeko eutsi ezineko gogoia; beren bihotzek ere batera egiten dituzte taupadak. Abesten hasi eta minutu gutxira, pultsua berdindu egiten da eta, ondorioz, "kantua abesbatzaren kideen artean partekaturiko emozio-eredua sortzen du", "Frontiers in Psychology" aldizkariaren azken alean adierazitakoaren arabera. Abesteak, ofitioa baino geldoagoa den arnasketa-erritmoa izatea dakar; honek, berriz, bihotz-jardueran eragina du. Bihotz-erritmoa arnasketa motelarekin bat egiteak eragin subjektibo eta biologiko lasaigarria dauka eta onuragarria da funtzio kardiobaskularrentzat. Abestiaren esaldien luzerak arnasketa gidatzen du, erregularra, motela eta sakona bihurtuz. Esaldi luzeak abestiek, yogaren arnasketa-eraketak duten eragin bera lortzen dute. Abesbatzan abestea, baterako ekintza jarraituaren adibidea da, abeslariaren beraien ahotsak, hitzak eta erritmoa taldera egokitzten dituztelako. Honek, faktore hauek erregulatzen dituzten bulkada neurologikoak sinkronizatu egiten direla esan nahi du eta, ikerketak erakusten duenez, arnasketa eta, ondorioz, bihotz-erritmoa eta emozioak ere sinkronizatu egiten dira. Zientziak bermatutako abesten jarraitzeko zergati berriak.

2014-15 IKASTURTEKO MATRIKULAZIOA

Matrikulazioa da ikasturteko unerik garrantzitsuenetakoa. Zergatia azalduko dizuegu laburki, eta betetzeko zenbait iradokizun emango dizkizuegu:

1. Zuen matrikulei esker, zeintzuk diren datorren ikasturtean gurekin ikasi nahi dituzuen irakasgaiak jakingo dugu. Eta honekin ezagutuko dugu zenbat plaza ditugun libre irakasgai berriak eskatu nahi dituzuenentzat, lehenengoz gurekin ikastera datozenentzat, eszedentzia eta gero berriro itzultzen direnentzat... Funtsezkoa da, bada, ikasturtearen antolakuntza egokirako eta guztioi zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.
2. Zuzenki betetzeko, irakasle-tutorearen laguntza erabili, bera baita gurekin ikasiko duzunaren segimendua egiteko erreferentzia. Gainera, ikasturtean zehar eman dizugun informazioa eta web orriaren eskura duzuna ere begiratu dezakezu.
3. Matrikulazio-orriaren datuak zuzentzeko atala duzue. Garrantzitsua da behar bezala eguneratuta izan ditzagun.
4. Orriaren aurrealdean, datorren ikasturterako tasa, prezio eta hobariei buruzko informazioa daukazu, matrikulatzeko epeen oroigarriekin batera.
5. Eskaeraren beheko aldean, zuekin eraman behar duzun frogagiria da. Goian eta behean jarri dituzuen datuak berdina direla baieztatu ezazue; oso garrantzitsua da, galtze, zalantza edo zeintzuk diren eskatu dituzuen irakasgaiak baieztatuta beharreko kasuan funtsezkoa baita.
6. Hiruhilekoa amaitu baino lehen, matrikulazio-orria emango dizuegu, zuen tutorearen bidez.
7. Datorren ikasturterako matrikula, maiatzaren 9an itxiko da, musika-tresna aukeratu behar duten ikasleentzat izan ezik; hautentzat, epea maiatzaren 8a eta 14a bitartekoa izango da.
8. Gurekin ikasi nahi duen eta oraindik matrikulatuta ez dagoenak, maiatzaren 15a eta 31 bitartean izango du izena emateko epea.

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK.
ZUEN ZAIN GAITUZUE.

Hileko egutegia

Apirila

a	a	a	a	o	o	l	i
	1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	

28 29 30

- Jai-egunak
- Eskolaren jarduerak
- Jarduerak jai-egunetan

Agenda

Apirila

Apirilak 2: Piano-ikasleen errezitaldia. Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan (Mesedeetako kalea, 13). 17:45ean. Sarrera doan.

Apirilak 3: Piano-ikasleen errezitaldia. Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan (Mesedeetako kalea, 13). 17:45ean. Sarrera doan.

Apirilak 4: Flauta-ikasleen errezitaldia. Musika Eskolako Entzunaretoan. 19:00etan. Sarrera doan.

Apirilak 7: Aste Santuko Entzunaldiak. 18:15 eta 19:30ean. Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Apirilak 8: Aste Santuko Entzunaldiak. 18:15 eta 19:30ean. Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera doan.

Apirilak 10: Perkusio-kontzertu didaktikoa. 11:00etan udaleko ikastetxeentzat, eta 17:45ean Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako entzuleentzat. Musika Eskolako Entzunaretoan.